

# Ze barri?

1999  
MAIATZA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

31 zkia.

*Urlatik Landetara*


Elkarrizketa:

Victor Jesús Gonzalez, saltsa irakaslea.

---

Almen ikastolaren Feria.

---



**Hauteskundeak  
Udalaletxe, Foru Aldundi  
eta Europarako**



# zu zeu izan

Eskoriatzako Elizateen Elkartea (E.E.E.)

*Emaiguzu botoa*



**Eskoriatza**  
*zuk nahi duzun herria*  
*el pueblo que tú quieres*

**Eman botoa**  
**Vota**



eusko  
alkartasuna



Zurekin bateginik.  
Porque es tiempo de ilusión.



## "QUISIERA SER ALCALDE.....ESKOITZAKUA....."


Baina zertarako? ".....para dar a los pobres parrarra nahikua.....?" ".....para hacerle un zirri a la criada ate ostian.....?". Hortarako ezta zertan izenik Eskoitzako alkate. Aihuntamentura lanien fan biheda, herrixen alde eittera, ta hortarako kondizino inportantienetaiko bat herrixa ta herrittarrak ezauketia da, ta oinguen presentetan dienen artien danak eztaue hori kondizinuoi beteten.

Tristia da kanpotik etorri biher izetia kandidatura oso bat herrixen presentetara. Gainera, danok dakigunien partietan urteten dauien politikuak bere partiduak hainbeste ero horrenbeste herrittan presentetan dauela kandidaturia esateko euki daixien dala gehixen bat. Hori ez ta herrixen alde eittia, hori zelabaitteko argumentu politikueta sartutia, eskuartien numero, datu batzuk eukittia besteik ez ta. Eta barrez, herriko botazinuak hain politikuak eztien bakarrak die. Herrixen, personiai botatejakolako, ez partiduai. Aihuntamentua funzionau eraitten dauienak eztielako partiduetako aparatuak, herrittar konprometiruapaino. Ta honeik azkenopaino ezte eguneroko prolemak soluzionau leikienak. Makinatxo bat sorpresa egongo litzakez "lista zabalak" deiketajaken sistemian balego. Ozea, presentetan dien guztiakin, partidu ero lista

bakotxetik guraina hartu, eta bakotxak gustokuen dittuen listetako kandidatuak hartu hal izengo balittu. Susto ederra batepaino gehixauk!

Dana dala, listok eitteko obligazinuen ikusi dienen artien komentaixo jenerala da inope eztauela Aihuntamentura fateko biherlekoik hartzeik gura. Horixe ei

Zelan inportantiena personia dala esan doun, erozeini eskatu bihejakon lelhengoko gauzia koherentzia apur bat da. Eta aurtengo alkatetza kandidaturan baten antzemuten dan transfugismo politikua, danok entendiru gaittezen, txaketia aldaketia alkate izeteko asmuaz, ez ta ez koherentiena, ta ezta etikuen be. Horri gehittuten butsou badazela herrixen gauza mordotxua eitteko: esate baterako, ditzosozko obrok behinguhatik akabetia, momentu hontan Goiko kalia, Elixatik frailietara Sarajevo balitz moruen daukena, etxe barrixak, industrialdia, klase guztietako ekipamentuak Eskoitzak toketajakon lekuen iphintteko, ahaztu barik Eskoitzai izekeria emuntsien ta emutetsien auzuak ta harein prosperidadia, batepaino gehixauk euki biheittu burukuminen bat ero beste .....



dalako askon esanetan berba egokixa: biherlekua. Ez ta estrainetakua, gaurko egunien, inope eztauelako gura kobretan eztan lanik, gaintetik, eindozun ero eztozun gauzkatik mundu guztien aguetan egoteko gero. Aila kuidaus! Baina hori be ez ta kostinua, geuk ezpou eitten inor etxakulako etorriko. Bueno, bai, politika jenerala eitteko, kandidaturak Donostiatik eindda ekarteittuenak. Baina hori ez ta ganoria.

Ta azkeneko puntutxo bapaino ez.

D.M.III.na

P.D: San Pedruape badatoz eta eskaeratxo bat eittia gustauko litxaket: Mesedez, eztaila igezko moruen pasau eta inor eztaila despistau Eskoitzako karrera ziklistia organizetiaz.

Porzierto, Junio hasieran zelebrauko dan Ferixan ondo pasau!.....



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria  
Euskara Batzordea



**ZE BARRI?**

**Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA**  
Erredakzio kontseilua: Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez, Monika Belastegi.  
Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.  
Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.  
Tirada: 2.000 ale Lege gordailua: SS - 200/99 ISSN: 1139-9856  
"ZE BARRI? aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"





## Eskoriatzako Gazte Asanblada Habian

Badirudi azken urteotan gure herriko gazteriak bizi izan duen "lozorroa" bukatzeko ordua iritsi dela. Denon ezpainetan hainbat alditan izan dugun "herri honetan ez da ezebe eitten" esaldia ahazten hasi beharko dugu; Apirilaz gerotzik, hainbat kuadrilatik etorritako gazteak biltzen hasi baitira Eskoriatzako Gazte Asanblada (EGAS) martxan jartzeko.

Gazte, kuadrila eta tribu urbanoen artean dauden ezberdintasunak gaindituz, ekintzatarra pasatzeko ordua dela erabaki du lagun talde honek, eta dagoeneko ekimena zabaldu eta herriko gazte guztiengana helarazteko ahaleginetan dabilta.

Gazte Asanblada honek habian jarritako lehen ekintzak Atxorrotzeko Egunaren bezperan antolatutako Akelarre eta kanpaldia izan ziren. Orain aste batzuk direnetik, berriz, herriko hainbat

puntutan kartelak ezarri eta sinadurak biltzeko orriak jarri dituzte, sortutako ideia zabaldu eta jendeak bere atxikimendua eman ahal izan dezan. Helburu berarekin, kultur elkarte eta bestelako taldeekin ere harremanetan jarri dira, eta datozen Udal Huteskundeetan aurkeztuko diren alderdi politikoeekin ere kontaktuak izan dituzte, legegaldi berrian aukeratuak izango diren politikariekin eta Kultur Etxetik sortutako ekimenekin elkarlana jorratzea nahi baitu EGASek, baita sortu daitezkeen beste edozein ekimenekin ere. Ildo horretatik, sortu berri den Asanbladak pasa den hilaren erdialdean Deba Garaiko Plataforma Zapatistak antolatutako Astean emandako laguntza aipa daiteke, eta talde honetako zenbait kide aurtengo San Pedro Jaiak antolatzeko helburuaz egiten ari diren bileratan ere parte hartzen ari da, ideia berriak ekarriaz. Ideiak dira falta ez direnak, ikastaro,

hitzaldi eta beste hainbat aktibitate martxan jarri nahi dira, eta badirudi orain lauzpabost urte dela gure herrian antolatu eta horren erantzun polita izan zuen Herri Olinpiadak ere, bigarren edizio bat izango duela sortu berri den taldearen ekimenez.

Hala ere, EGASen lehenengo helburua, eta garrantzitsua benetan, ekimena herriko gazte guztien artean zabaldu eta bertan eta antolatuko diren ekintzetan parte hartzea nahiko luketen guztien gogoia biltzea da, ideiarekin bat datozenak zenbat izan daitezkeen jakitea, azken batean. Horretarako lehen aipatutako orri informatiboak aurkituko dituzue kalean. Taldea martitzenetan bilduko da hemendik aurrera, oraingoz Kultur Etxean egingo dira bilera hauek, arratsaldeko zazpi t'erdia bitartean, eta edozein iniziatibak izango du bere lekua bertan.

## Chiapasen aldeko astea Eskoriatzan

Herriko hainbat gazte antolatuta, Aste Zapatista batez gozatzeko aukera izan dugu Eskoriatzan bukatu berri zaigun hilabetean. Maiatzaren 10ean hasi eta 15era bitartean, Mexikoko Zapatistengana gehiago hurbildu gaituzten diapositiba emanaldi, hitzaldi, parrilada eta poesia eta musika saioak izan ditugu.

Aipatu bezala ekimena herriko hainbat gazterena izan da, eta astea antolatzeko arrazoiak bi nagusiki; Chiapas eta bertako egoera eza-gutzera ematea herrian bata, eta Mexikoko zo-nalde honetara bidaltzeko dirua biltzea bestea.

Aste honetako ekitaldi nagusien artean, eta eguraldiak lagundu ez zuelako atzeratu

bazen ere, hilaren 22an parrilada zapatista ospatu zen deposito zaharrean. Bertan, poesia errezitaldiak, musika, eta jana eta edana izan zen hurbildutako guztientzat.



Lagun talde polita bildu zen deposito zaharrean Chiapasen aldeko parrilada ospatzeko.



## Aitzorrotz Eguna, lanbrotsua baina gozoa


Eguraldiak gehiegi lagundu ez zuen arren, jai giroan ospatu zen Aitzorrotz Eguna maiatzaren 2an. Gazte Asanbladak antolatuta larunbat gauean akelarrea egin zen. Igandean lanbroa egin arren, txubaskeroak jantzi eta jendea animatu zen Aitorrotz Eguna izen bereko mendian ospatzen.

Batzuk, meza entzun, hamarretakoa jan eta behera egin zuten eguerdirako. Beste batzuk, 60 lagun inguru, animatu, bertan gelditu eta bildotsa jan eta egun osoko egonaldia egin zuten bertan. Bildotsa ezin izan zen pentsatuta zegoen bezala burduntzian erre eta okindegiko labeen erreta ekarri zuten. trikitalariak eta bertsolariak ere entzun ahal izan genituen.

Arratsaldeko bostetan, bapo bazkaldu ostean, herrira jeitsi eta jaiak herrian jarraitu zuen. Urtero

egiten den legez, eskoriatzarrok tortilak eraman genituen plazara, zein baino zein goxoagoa, eta ondoren hauen salmentari ekin zitzaion. Eguraldiak lagundu izanez gero, tradizioarekin hobeto bete ahal izango genuen. Hala ere, antolatzaileak pozik gelditu dira eta herriko GKEentzako 300 mila pezeta inguru batu ziren.

**Eguraldiaren gora-beherak albora utzita, egun polita izan zen. Jende ugari bildu zen Aitzorrotzera eta nahi bezala egun osoko mendi jaia egin zen.**



## Degurixako XXVI. akanpada

Orain artean behintzat udaberri nahiko eskasa izan dugun arren, konturatu orduko Ekainean gaude, uda bertan dugu eta dagoeneko heldu da planak egin eta denbora libre a probetxatzen hasteko ordua. Uztaila hilabete aktiboa izaten da gure herrian eta azpimarratzekoak diren ekintzen artean, duda gabe, aipatzekoa da hile bukaeran Degurixan egiten den akanpada.

Aurten bere hogeitaseigarren edizioa beteko du akanpada honek, eta beste urteetan egin izan den lez, antolatzaileak hasi dira berau martxan jartzen. Degurixako akanpada, urtean behin eta batez ere elbarrituentzako egiten den irteera da. Bertako ingurugiroak, parte hartzen dutenen naturarekiko erlazioa estutu eta giza harremanak hobetzen ditu, eta leku aproposa da benetan ekintzak dituen helburuak lortu ahal izateko; parte hartzaileak elkar ezagutu, errespetatu eta nola ez, ondo pasatzea alegia.

Antolatzaileen esanetan, akanpada honen zeregin garrantzitsuena, elbarritu eta ez elbarrituen arteko normalizazio prozesuan aktiboki parte hartzea da; beraien hitzetan, *"Denok gara berdinak eta horrela behar du izan, nahiz eta bakoitzak behar desberdinak dituen. Ideia hau landu ahal izateko ezagupen prozesua behar beharrezkotzat jotzen dugu. Integrazioa, eguneroko lana da. Guk momentuz, urteko lau egun lortuak ditugu, baina oraindik beste asko gelditzen dira."*

Aurten, Uztailaren 23, 24 eta 25 a izan dira akanpada hau egiteko hautatutako egunak, eta izenemate epea irekita dago



judanik. Ekainak 30ean bukatuko da izen emate epe hori, eta 3.000 pezeta dira ordaindu beharrekoak. Hala ere, bai apuntatzeko baita gaiari buruzko informazio gehiago jaso nahi izanez gero ere, 943 71 42 92 telefonoan aurkituko duzue zuen dudak aurkituko dituen lagun bat.

Beraz, badakizue, animatu eta eman izena!



## VICTOR JESUS GONZALEZ

### Saltsa Ikastaroko Irakaslea

Victor Jesus Gonzalez kubatarra dugu orain hilabete inguru hasita, ostiralero Eskoriatzan izaten den saltsa ikastaroko irakaslea. Lanbidez margolari eta eskultorea, orain hiru urte dela etorri zen Kubatik, eta bere estudioa Urretxun jarri ondoren, erakusgai duen artista lana dantza ikastaroekin bateratzen du; horretan Oiane Zapirain azkoitiarra izaten du lagun. 32 urte ditu Victorrek, ezkondua egona da, eta alaba bat du, amonaren izen bera duena, Nilda.



Ezkerreko bikotea dugu ikastaroko irakasle pareja. Ikus daitekeenez jende ugari dabil udara begira mokorrari eragiten ikasi guran.

#### Zer behar da saltsa dantzatzeko?

Batez ere, ondo pasatzeko gogoia, eta norbere folklorea aberasten laguntzen duten erritmoetan sartu eta ikasteko gogoia ere bai.

#### Ze jende mota da zure ikastaroetara hurbiltzen dena?

Orain urte batzuk batez ere emakume helduak izaten ziren etortzen zirenak, baina dantza mota honek izan duen "boom" a dela eta, edade guztietako gizaki zein emakumeak etortzen dira orain. Azken urte hauetan, jende gazte asko etortzen da ikastaroetara.

#### Zer du saltsak orain duen arrakasta lortu ahal izateko?

Batez ere, azken urteetan galtzen hasita zegoen heldutako dantzaren ohitura berreskuratzen lagundu

duelako dator arrakasta. Bikoteka dantza egiteak lagunak egin eta jendea elkar ezagutzen laguntzen du, eta apurka-apurka jendea dantzan egiteko biltzen den taberna eta dantzalekuak egin dira leku guztietan.

Momentu honetan, Gipuzkoako 22 herritan ari gara ikastaroak ematen, eta hemen, Eskoriatza eta Aretxabaletako 53 pertsonak eman dute izena. Saltsari esker, Kuba eta Euskal Herria bezalako herriak elkartzeaz gain, bertako jendeak ere elkar ezagutzea lortzen ari gara.

#### Erreza al da dantza tropikal bat hemen Euskal Herrian erakusten saiatzea? Ikasle onak al gara euskaldunok?

Euskaldunek duten hotz fama hori ez dut ezagutu nik orain arte. Agian euskaldunek Kubarekiko duten sinpatia dela eta, jendea oso irekia

da eta ondo pasatzen du ikastaroan. Jendea ondo egokitzen da saltsara, eta ondo pasatzeko eta gorputzari poza emateko gogoarekin etortzen da ikastaroetara.

#### Zer esango zenieke apuntatzeko gogoz dauden guztiei?


Anima daitezela eta ostiral gauean frontoetik pasa daitezela, zer egiten dugun ikusteko.

Ikastaroiez aparte, hilabeteko lehenengo larunbatetan ere, dantza ikuskizun bat eta saltsa gau bat izaten dugu Olaberriako Pryca hipermerkatuan dagoen tabernan. Dantzan egitea gustatzen zaion edonori bertara hurbiltzeko gonbitea luzatu nahi nioke.



# UDALETXE, FORU ALDUNDI eta EUROPARAKO HAUTESKUNDEAK

Udaletxerako Hauteskundeak



## Udaletxerako lehen 4 hautagaien fitxa

- Izen abizena
- Ikasketa eta lanbidea
- Adina
- Egoera zibila
- Udaletxean esperientzia

### E.A. / E.A.J. - P.N.V.

				<p><b>ZERRENDA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Juan Carlos Bengoa Munduate</li> <li>Maider Otamendi Tolosa</li> <li>Ignacio Astiazaran Antxia</li> <li>Jose Maria Beamurgia Isasi-Isasmendi</li> <li>Jose Manuel Villar Careaga</li> <li>Arantxa Enekotegi Agirre</li> <li>Txomin Azpitarte Izagirre</li> <li>Begoña Eraña Lazkano</li> <li>Arantxa Iregi Villar</li> <li>Joaquin Armendariz Abasolo</li> <li>Florentino Galindo Cañibano</li> </ol> <p><b>Ordezkoak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Maria Jesus Urcelai Ondona</li> <li>Eduardo Okina Garai</li> <li>Asier Sologaitza Agiriano</li> </ol>
<p><b>Juan Carlos Bengoa Munduate</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Geografian eta Historian Lizentziatua</li> <li>• 32 urte</li> <li>• Ezkongabea</li> <li>• Udaletxean 8 urte</li> </ul>	<p><b>Maider Otamendi Tolosa</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ingenieritza Tekniko ikaslea</li> <li>• 22 urte</li> <li>• Ezkongabea</li> <li>• Udalean lehen aldia</li> </ul>	<p><b>Ignacio Astiazaran Antxia</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Medikua, PAKEA</li> <li>• Mutuan lanean</li> <li>• 40 urte</li> <li>• Ezkondua, seme bat</li> <li>• Udalean lehen urtea</li> </ul>	<p><b>Jose Mª Beamurgia Isasi - Isasmendi</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• FP2. Ederlan</li> <li>• 50 urte</li> <li>• Ezkondua, 3 seme alaba</li> <li>• Udalean lehen aldiz</li> </ul>	

### E. H.




				<p><b>ZERRENDA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Edorta Zubizarreta Alegria</li> <li>Dabid Arrieta Armendariz</li> <li>Josu Azkarate Cañamaque</li> <li>Dorleta Kortazar Alkoz</li> <li>Iñaki Uribetxebarria Beloki</li> <li>Aitziber Zufiria Oianguren</li> <li>Andoni Bengoa Izurrategi</li> <li>J. Joakin Enekotegi Ruiz de Azua</li> <li>Maider Nafarrate Arkauz.</li> <li>J. Joakin Arrieta Armendariz</li> <li>Edorta Barandiaran Garcia</li> </ol> <p><b>Ordezkoak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Lorea Diaz De Gereñu Garai</li> <li>Asier Urzelai Letona</li> <li>Angel Kortazar Izurrategi.</li> </ol>
<p><b>Edorta Zubizarreta Alegria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Administrataria</li> <li>• 37 urte</li> <li>• Ezkondua - seme 1</li> <li>• Udaletxean 4 urte</li> </ul>	<p><b>Dabid Arrieta Armendariz</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• COU-Osakidetza</li> <li>• 35 urte</li> <li>• Ezkongabea</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	<p><b>Josu Azkarate Cañamaque</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• COU-Auzolagun</li> <li>• 32 urte</li> <li>• Ezkongabea</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	<p><b>Dorleta Kortazar Alkoz</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezitzaile-Arrasateko Gazte Bulegoa</li> <li>• 24</li> <li>• Ezkongabea</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	



ELIZATEEN ELKARTEA

				<p><b>ZERRENDA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Martin Olave Uribarren</li> <li>Juan Felix Iregi Lete</li> <li>Maite Beitia Azkarate</li> <li>Jose Ramon Beitia Zugasti</li> <li>Felipe Arrese Alberdi</li> <li>Arantzazu Loidi Garitano</li> <li>Fdo. Daniel Letona Errasti</li> <li>Ignazio Kortazar Izurategi</li> <li>Ramon Errasti Beitia</li> <li>J. Carlos Beloki Ochoa-Aizpuru</li> <li>Francisco Lasagabaster Uribe-Echevarria</li> </ol> <p><b>Ordezkoak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>M<sup>a</sup> Isabel Bengoetxea Gabilondo</li> <li>Felix Zubia Zugasti</li> <li>Vicente Agiriano Jauregi</li> </ol>
<p><b>Martin Olabe Uribarren (Gellao)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ing. Teknikoa, Fagor Sistemas - Kalitate Zuz.</li> <li>• 50 urte</li> <li>• Ezkondua - 2 seme alaba</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	<p><b>Juan Felix Iregi (Lete)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gestio Informatika - Informatika teknikaria eta baserritarra</li> <li>• 38 urte</li> <li>• 4 urtetan auzoalkate</li> </ul>	<p><b>Maite Beitia (Marin)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Arte Ederretan Lizentziatua - Almen</li> <li>• 32 urte</li> <li>• Ezkondua - seme 1</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	<p><b>Jose Ramon Beitia (Apotzaga)</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Langilea TESAn eta baserritarra</li> <li>• 52 urte</li> <li>• Ezkondua - 2 semealaba</li> <li>• 12 urtetan auzoalkate</li> </ul>	

I.U.-E.B.

				<p><b>ZERRENDA</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Javier Zugasti Azkarraga</li> <li>Imanol Zubizarreta Alegria</li> <li>Blanca Merchan Ropero</li> <li>Manuel Mata Blanco</li> <li>Antonio Ortiz Caballero</li> <li>Francisco Corbal Vazquez</li> <li>Miguel Angel Miguel Matinez</li> <li>J. Luis Merino Sanabria</li> <li>M<sup>a</sup> Visitación Vidondo Díaz Junguitu</li> <li>José Jorge Da Costa Marinho</li> <li>Carmela Fernandez Blanco</li> </ol> <p><b>Ordezkoak:</b></p> <ol style="list-style-type: none"> <li>Maria Matilla Alonso</li> <li>Teodoro Franco Bizarro</li> <li>Ruperto Garcia Gómez</li> </ol>
<p><b>Javier Zugasti Azkarraga</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• FPI, Eusko Jaurlaritza</li> <li>• 46 urte</li> <li>• Ezkondua - 2 seme alaba</li> <li>• Udaletxean 4 urte</li> </ul>	<p><b>Imanol Zubizarreta Alegria</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Enpresa Zientziak, Autonomia</li> <li>• 40 urte</li> <li>• Ezkondua - 2 seme alaba</li> <li>• Udaletxean 8 urte</li> </ul>	<p><b>Blanca Merchan Ropero</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• B.U.P. ,Legaia S.L.</li> <li>• 29 urte</li> <li>• Ezkondua - 2 seme alaba</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	<p><b>Manuel Mata Blanco</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lehen Hezkuntza, Fundiciones Leniz</li> <li>• 51 urte</li> <li>• Ezkondua</li> <li>• Udaletxean egon barik</li> </ul>	

P.S.E. - E.E. (P.S.O.E.)

**ZERRENDA**

- Oscar García Horrillo
- M<sup>a</sup> Iciar Badiola Subinas
- Gerardo Cantera Fdez.
- Eloy Rivas Mulas
- J. Antonio Sanchez Tejada
- Rafael Ortiz Sánchez
- Ana M<sup>a</sup> Hernandez Espada
- Rosa M<sup>a</sup> Odriozola Unanue
- Francisco Chueca Iñiguez
- Jaime Fdez. Zabaleta
- Rosa Laborde Abasolo

**Ordezkoak:**

- José Echeverría Ayerbe
- Asier Hidalgo Mardones

P.P.

**ZERRENDA**

- Susana Amaro Morillo
- Pablo Otero Escudero
- Marta Escudero Díaz - Tejeiro
- Juan González Serrano
- Luis Ramón García Carus
- M<sup>a</sup> del Pilar García Moreno
- M<sup>a</sup> Luisa Herraiz Calleja
- José García Vico
- M<sup>a</sup> Carmen García Moreno
- Jose M<sup>a</sup> Saiz Fernandez
- M<sup>a</sup> Nieves Angulo Aguado



**Ordezkoak:**

- Fernando González Calle
- M<sup>a</sup> del Mar Tello Borrell


**OHARRA**

*Aldizkariaren asmoa Udaletxera aurkezten diren talde guztien lehen 4 ordezkarien datuak zehaztea izan den arren ez ditugu PSE -EE eta PP alderdiei eskatutako datuak denboraz eskuratu.*





<b>EH</b>	<b>711</b>
<b>E.A.</b>	<b>474</b>
<b>P.N.V.</b>	<b>453</b>
<b>P.S.O.E.</b>	<b>374</b>
<b>P.P.</b>	<b>235</b>
<b>I.U.</b>	<b>127</b>



**haize berriak**  
**ESKORIATZA** ko herrira

UDAL HAUTESKUNDEAK 99



**Euskal Herritarrok**  
**bozkatu**





**Pagalday**  
**PAGALDAI**  
**HARATEGIA**


Gaztañadui, 15  
 Tfnoa.:

Ondo pasa San Pedroan!.

**RELE**  
**Legazpia**

Telebista • Bideoa  
 • Elektrogailuak  
 Instalazio orokorrak • Opariak

Tfnoa.: 714072



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:  
 En la edición de esta publicación colabora:

**kutxa** fundazioa  
 fundación

**BEIRALAN** ♦ Komunerako altzari eta manparak  
 ♦ Ispiludun armairu aurrealdeak  
 ♦ Beirate artistikoak  
 ♦ Salarako mahaiaik

**KRISTALDEGIA**

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78  
 ARETXABAETA

**AZKOAGA**  
 ESTANKOA  
 Zure zerbitzura

SALON DE BELLEZA  
 OSASUNA ETA EDERGINTZA

**DORLETA**  
 Aranburuzabala, 22 -bajo  
 Tfnoa.: 943 71 51 20

**E. MAZMELA**  
 HORTZ  
 KLINIKA

Tel. 943 71 47 36

**goxotxiki**  
 GOZOTEGIA

Hidalga, 3 • Tf. 943 714292  
**ESKORIATZA**

Cuenta Joven  
 de Caja Laboral  
 El servicio  
 más completo.

**Euskadiko Kutxaren  
 Kontu Gaztea.**  
 Zerbitzuetan  
 osatuena.

**CAJA LABORAL**  
 EUSKADIKO KUTXA

Aingeru Ibiltokia, z/g.  
 Tfnoa.: 943- 715061

**LENIZ**  
 ESKORIATZA

**SUZUKI**

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA  
**REPARACIONES LENIZ, C.B.**

**TOKI ALAI**  
 Taberna  
 Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN**  
**ESPEZIALIZATUA**

**EROSLE**  
 HARATEGIA, FRUTATEGIA eta BESTELAKOAK

Aranburuzabala, 3  
 Tfnoa: 943 714546

**GOLO**  
**GAZTE**  
**MODA**

Hidalga, 15  
 Tfnoa.: 943 71 45 61

**Decor**

**Industrias Olabarri, S.A.**  
 Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)  
 Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxes: 34-43 - 714061

**Aldi/bi**

**943 71 20 02**


**HEMEN**  
**ZURE**  
**PUBLIZITATEA**



# TXIKIRRI-TXIKIRRI II. MENDI IBILALDIA


Ekainaren 20an ospatuko da Txikirri- Txikirri 2. mendi ibilaldia, "Hildako Eskoriatzako mendizaleen omenez"

Parte hartzeko 500 pzta ordaindu beharko dira. Izena emateko ekainaren 18 rarte 7tatik 9tara Eskoriatzako Mendi Taldeko lokalera joan (Olazar 8 behe eskuma) edo 943 714620 tfnora deitu daiteke. Ibilaldiaren egunean goizeko 6etatik 7.30ak bitartean ere emana ahal izango da izena.



## DENBORAK ETA JAN-EDATEKO LEKUAK

TOKIAK	DENBORAK	KONTROLAK	JAN-EDATEKOAK	D.Y.A	ITURRIAK
ESKORIATZA	IRTEERA	X		D.Y.A.	X
MENDIOLA					X
ELIXABARRI					X
KURTZEBARRI	1,10 - 2	X			
KARGALEKU					
DEGURIXA			X	D.Y.A.	X
MUGARRILUZE	2,35 - 3,35	X			
LEIXARGARATE					X
BENTAFRIA	3,55 - 5,35	X	X	D.Y.A.	X
JARINDO					X
KRUZETA	6,00 - 7,50	X	X		X
APOTZAGA					X
ESKORIATZA	7,00 - 9,30	X	X	D.Y.A.	X



40 KM



**Zein irizpide erabiltzen duzu udal hauteskundeetan botua emateko orduan?**


**Zer eskatuko zenioke alkate berriari?**



**Anaitz Lazkano**  
(23 urte, ikaslea)

Alderdien programa, bertan dauden pertsonak eta osatzen duten ekipoa begiratzen dut.

Egiten ari diren obrak ondo bukatzea eta gazteriarentzako alternatibak eskaintzea.



**Txomin Caceres**  
(35 urte, tabernaria)

Dauden alderdietatik batek ere ez du benetako programarik egiten.

Herria nola dagoen gehiago begiratzeko eskatuko nioke, kaleetan eta gazterian ere bai; herri honetan ez da gazteentzat ezer egiten.



**Jesus Jara**  
(35 urte langilea)

Eskaintzen diren programak gehiago begiratzen ditut aurpegiak baino.


Alkatearengana heltzea oso zaila izan da orain arte. Gu Intxaurtxuetan bizi gara eta eskaera pila bat egin arren, inoiz ez dugu erantzun bat jaso ere egin. Heltzeko errazagoa izatea eskatuko nioke alkateari.



**Ander Agiriano**  
(Ander Agiriano)

Alderdien programak, herri mailan eskaintzen dituzten programak, eta norbere alderdia zein den noski


Kaleko obrak bukatzea eta herrian lan egitea.



**Pedro Lucero**  
(50 urte langilea)

Norbere alderdia zein den eta aurkezten den programa.

Herriagatik begira dezala eta herrikoa izatea.



**Eugenio Beloki**  
(66 urte jubilatua)

Herriarengatik gehien nork egiten duen begiratzen dut

Ahal duena egin dezala, hori nahikoa da.



## Azoka egun arrakastatsua berriro ere.

Jendez gainezka jarri zen berriro ere Eskoriatza pasa den larunbatean Jose Arana Almen Ikastolak antolatutako III. Baserri Produktuen Azoka eta egun osoan zehar antolatutako ekitaldiak izan zirela eta.

Eguraldia lagun izan zuten antolatzaileek (goiz partean bai behintzat) eta plaza inoiz baino beteago izan genuen. Postuetan, herriko eta inguruetako beserritarrek jarritako barazki, fruitu, perretxiko, ogi eta bestelakoez aparte, hainbat saltzaile eta etxek jarritako erakustoki eta dendak ere egon ziren. Baina hori baino askoz gehiagoz bete zituzten begiak plazara hurbildu zirenek. Zenbait lagunek jendeak ikusi ahal izateko etxeko abere eta hegaztiak erakusgai jarri zituen, herriko hainbat artisau ezezagunek beren lana erakutsi zuten, beste batzuek (profesionalagoak, noski) berea salgai izan zuten, eta inguruko baserritarren (eta ez hain baserritarren) arreta piztu zuten zenbait baserri tresneria banatzaile ere bertan egon zen, motozerra, belar moztaille eta bestelako tramankuluekin. Denera, ia 70 izan ziren jarritako postuak, eta aipagarria benetan hegaztien erakustokia, 25 etxeko hegazti espezie inguru bildu zituen; zenbait sari ere banatu ziren beraien artean, Gernika plazan txorimalogintzan aritutakoek jaso zituztenez aparte.

Eguerdi partean giro jatorra sortu zen benetan herriko plaza inguruan. Adin guztietako jendea nahastuta ibili zen, eta Kontzejupean beren "sukaldea" jarri zuten

talogileek jo eta su aritu beharra izan zuten nahi zuten guztiari jaten emateko.

Asko izan ziren plazatik zuzenean frontoirantz egin zutenak, ia 400 pertsona bildu ziren bertan, bazkalordua eta bazkalostea girotuaz. Zenbait koadrilak bere abilezia erakutsi zuten mikroarekin, euskal kantuz osatutako karaokean abestuz.



Plazan giro ederra sortu zen

Bazkariko irudia



Ia 70 postu egon dira aurtan

Bakar xamar ibili zirenak arratsalde partean beren ekitalditxoak hasi zuten Ene Bada! musika taldekoak izan ziren, orain bi urte eta igaz herrian egondako giroak beheruntz egin zuten; badirudi jendeak Oñati edo Elorrixo aldera jotzea nahiago izan zuela festarekin herrian jarraitzea baino! Alde ederra igerriko zuten musikariek, orain aste batzuk dela Eskoriatzan egondakoak izanda, Irakasle Eskolako Jaiean, juerga ederra egon zen eta!

Hala ere, gauak ez zion itzalik egin egunari, eta aurtengoan ere, Azoka egun ederra izan genuela esan genezake. Zorionak guztioi!



**BEHARREZKO**

**TELEFONOAK**

**Eskoriatza**

Udaletxea 943-714407  
 Udal Bulegoak 943-714532  
 Udaltzaingoa 943-714407  
 Euskaltegia 943-792168  
 Kultur-Etxea 943-714688  
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688  
 Kiroletxea 943-715328  
 Liburutegia 943-714688  
 Luis Eceiza 943-714938  
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486  
 Almen 943-714964  
 Museo-Eskola 943-714688  
**Ze Barri? 943-715434**  
 Talde Antimilitarista 943-715028  
 Irakasle Eskola 943-714157  
 Osakidetzeta 943-714452  
 Telesko 943-714917  
 Taxia 943-714059

**Bestelakoak**

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300  
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76  
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199  
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800  
 Renfe (Zumarraga) 943-721515  
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030  
 Pesa (Arrasate) 902 101 210  
 Larrialdiak (Arrasate) 771043  
 SOS Deiak 112

**AZOKA**

**VolsWagen Combi guztiz  
 ekipatua salgai**

**Tfnoa 943 -71.49.15**

**DISKA GOMENDIOA**

*S.A.ZUZENEAN*

Ia hamar urteko ibilbide luze eta diskografia oparoaren ondoren, talde gasteiztar honen lana osatzen duen zuzeneko diska duzue hile honetako Ze Barrin gomendatuko dizueguna. Iazko urte bukaeran Dima, Valencia eta MadriLen eginiko hiru kontzertuetan grabatua, Euskadiko hardcore talderik ezagun eta jarraituenak bere historia erreparatzen du, urteak pasa arren,

**UDARAKO EKINTZAK**

\* Udan zer egin jakin gabe baldin bazabiltza, Gazte Bulegoan dugu zenbait informazio interesgarri: hizkuntz egonaldiak Segurako aterpetxean, brigada internazionalistak, auzolandegiak... Baduzu non aukeratu.

**HIZKUNTZ EGONALDIAK**

\* Diputazioaren kanpainaren barruan 18-29 urte artekoentzat abuztuak 1etik 15era Segurako Aterpetxean ingelesa ikasteko aukera. Izen emateko epea: maiatzaren 26tik ekainaren 25era, Arrasateko Gazte Bulegoan.

**UDAKO UNIBERTSITATEAK**

\* Bulegoan aurki dezakezu EHUak eta UEUk antolaturiko ikastaroen berri. EHUaren kasuan izen emateko epea maiatzaren 3an zabaldu da, plazak bete arte. UEUan parte hartzeko berriz bi epe daude: Miarritzen burutuko diren ikastaroetarako ekainaren 1etik 25era eta Iruñian burutuko direnentzat ekainaren 1etik 30era.

**LANA**

\* Zintronigo eta Fiteroko Mankomunitaterako gizarte langile

jotzerako orduan duen griña galdu ez duela erakutsiz. Alderantziz, hasierako garaian zuen gogo horri esperientziak emandako soinu ezinhobea gehitu dio, doinu gogorrenen zale diren edo bertara hurbildu nahi dutenentzat oso kontuan edukitzeko diska osatuz. Estatu mailako musikaren elitean koka dezakegun arren (kilo bat kontzertuko eta astebururo jotzen jarraitzen dute) fresko eta garratzak dira beraien musika eta letrak, konpromezuz beteak eta kritikoak; gaur egungo gizartearen aurki genezakeen edozein gai astintzen dute gogor eta zuzen, eta ez dute

bat behar dute. Epea: 10.

\* Irungo Musika Eskolarako aldi baterako kontrabaxu eta txistu irakasleak behar dira. Epea: ekainak 19.

**LEHIAKETAK**

\* Bidasoako Nazioarteko Filme Laburren II. Zinemaldia. Lanak 1998ko urtarrilaren 1 ondoren eginikoak, gai librean eta 30 minutu baino laburragoak izan beharko dute. Epea: Ekainak 15.

\* Arrasateko Gazte Zerbitzuak antolatua, X. Argazki lehiaketa "Gazteak eta 2000. Urtea" lemapean. Bi kategoria: Deba Garaiko 14-18 urte bitarteko gazteak alde batetik eta 19-35 urte arteko edozein pertsona bestetik. Zuri beltzean nahiz koloretan, beste lehiaketaren baten saritu edo noizbait argitaratu gabeak beharko dute. Epea: urriak 8.

**IKASTAROAK**

\* Debako Arte Eskolak, udarako ikastaroak antolatu ditu: grabatu kalkografikoa hastapen mailan, zura, keramika, marmol eskultura, brontzea... Epea: ekainak 21.

bere mezu alternatiboa galtzen. Zuzenean duten kaña guztia jasotzea lortu duen diska honekin, Araban ere errebeldeak eta musikari oso onak daudela erakutsi digu berriz S.A.k.







VITO CDI



Galloper Santamo



Mitsubishi Montero Sport



Nissan Cabstar E

# Aldibin *berri* ugari dituzu



S/V40 TDI



Hyundai Sonata *berria*



Aldibi autoak, S.A.



MERCEDES  
Izar autoak, S. L.

**VOLVO**

Auto Suecia



GALLOPER

Almovil, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI  
MOTORS

Aldikar autoak, S.L.





# ERNE GAZTE, HEZIBIDEREN

## ALDEKO APOSTUA

## ERRENTA SEGURUA



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

### ALMEN ESKUALDEKO IKASTOLA ETA

### ARRASATEKO IKASTOLA

SAN FRANTZIZKO XABIER - SAN VIATOR

bi aukera anitz bezain osagarri  
honako ikasketak egiteko

### 1 BATXILERGO AUKERA GUZTIAK

- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
  - GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
  - TEKNOLOGIKOA, ESKOLA POLITEKNIKOAK
- ikastoloi transferitutakoa eta bere aholkularitzapean garatutakoa. Lanbide Heziketako tailerreko praktikak injinerutzarako konbalidatuta.

### 2 UNIBERTSITATE IKASKETAK

UNIBERTSITATEKO IKASKETA  
GUZTIETARAKO, EGUN DAUDEN  
UNIBERTSITATE GUZTIETAN, ETA GOI  
MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO  
SARBIDEA.

AURREMATRIKULAZIOA: EKAINAREN 1 ETIK 9 RA

MATRIKULAZIOA: UZTAILAREN 1 ETIK 9 RA

### 3 ETA LANBIDE HEZIKETA

- GORPUTZ ETA KIROL EKINTZAK (ALMEN ikastola)
- IRUDI PERTSONALAREN AHOIKULARITZA (ALMEN ikastola)
- ANALISI ETA KONTROL KIMIKOA (ALMEN ikastola)
- INGURUGIRO KIMIKA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- INGURUGIRO OSASUNA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- OSASUNGINTZAKO DOKUMENTAZIOA (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ERIZAINZAKO LAGUNTZA OSAGARRIAK (ARRASATEko ikastola -San Viator)
- ILEAPAINKETA (ARRASATEko ikastola -San Viator)

Kontakturako  
pertsonak



ALMEN  
IKASTOLA

Josebe  
Murumendaraz 943 71 49 07

ARRASATEKO  
IKASTOLA

San F. Xabier Margari  
Gorrotxategi 943 79 64 79

San Viator Idoia Urrutia 943 71 24 90

